

# Donostiako Aste Nagusia

## EUSKARAREN ERABILERAK GORA EGIN DU, BAITA GAZTELANIARENAK ERE

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartek 2003tik neurtzen du Gipuzkoako hiriburuko jai garrantzitsuenetako hizkuntza erabilera. Herritar boluntarioek behatzen dute ehundik gora jardueretako hizkuntza erabilera. Azken urteotan beherako joera eten eta gorantz egin du euskararen erabilera. Gaztelaniak ere gora egin du azken bi urteotan. Euskararen erabilerearen daturik kaskarrak 2007an jaso zen (%16,49) eta gaztelaniaren eta euskararen arteko alderik

handiena 2010ean gertatu zen: euskarak %17,69 eta gaztelaniak %62,58.

Bagera elkartearen helburua hizkuntza azterketak euskararen erabilera bultzatzea da. Donostiak udan duen bisitari kopurua kontuan izanda, euskarari mezezi duen tokia ematea eskatzen du elkarteak, hau da, gutxienez gaztelaniaren pareko agertzea eta hizkuntza gutxitua den neurrian lehentasunezko trataera izatea. Abuztuaren 10etik 17rako 109 jarduera aztertu dituzte, ahozko jar-


duna eta idatzizkoa ere bai. Ahozkoan hiru gauza hartu dituzte kontuan: aurkezpena –kontzertu baten aurkezpena adibidez–, jarduera beraren hizkuntza –musika taldeak zein hizkuntzatan abestu duen adibidez– eta dinamizatzailea (haur tailer bateko dinamizatzaileak erabili duen hizkuntza, adibidez).

Egitarau ofizialeko datuak daude hemen. Donostiako Piraten egitaraua ez da kontuan hartzen. Kontzertu batzuk salbu egitarau osoa euskaraz izaten du. ●




IDOIA ZABALETA / FOKU


### KIROLA




### LEHIAKETAK




### MUSIKA




### HAURRAK




### ANTZERKIA




### FOLKLOREA




### ZINEA




### BESTEAK



## HIZKUNTZA ERABILERA GUZTIRA



## HAURREN EKINTZAK KENDUTA




- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- ELE BITAN
- BESTE HIZKUNTZA BATEAN


**OHARRA**

**Gaztelaniaz:** Gaztelaniaz edo gaztelaniari lehentasuna emanda. **Euskaraz:** euskaraz edo euskarari lehentasuna emanda. **Ele bitan:** euskaraz eta gaztelaniaz neurri berean. **Beste hizkuntza batean:** edo euskara edo gaztelaniaz gain beste hizkuntzaren bat erabili da.


### DONOSTIA KULTURAK ANTOLATUTAKOAK



### ERAGILEEK UDALAREN PROGRAMAN ANTOLATUTAKOAK



### HIZKUNTZA ERABILERAREN GARAPENA



**Iturria:** Hizkuntza erabilerearen neurketa 2019, Donostiako Aste Nagusia, abuztuak 10-17 (Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte).